



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA


50 URTE
AÑOS
1968 - 2018
Biba Zientzia!
Ciencia Viva

2024/2025 IKASTURTEAREN BERRIKUSPENA
UPV/EHUKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO
Akademia Gestio Zerbitzua

Zerbitzuen Kartaren emaitzak

Onarpen-data: 2025/12/16

Baloratu 0-tik (ez batere ados) 10-era
(erabat ados):
Jasotako informazioa osoa izan da:




Iritzia eman duten erabiltzaileen % 93,62a gustora dago jasotako informazioarekin, eta %6,38a ez dago gustora.

Inkestari erantzun dioten erabiltzaileek **jasotako informazioarekin** duten **batez besteko asebetetze-maila 8,65ekoa da 10etik.**

Fakultatearen web orrian sartu al zara zure kudeaketarekin lotutako kontsultaren bat egiteko?


Baloratu 0-tik (ez batere ados) 10-era
(erabat ados):
Erraza izan al da bilatzen zenuena aurkitzea?



Web-orria erabili duten pertsonen % 92,63ak uste du erraza izan dela informazioa lortzea, % 7,37ak, aldiz, uste du ez dela erraza izan informazioa lortzea. Bestalde, inkestari erantzun dioten pertsonen % 32,62ak esan du ez dela Zerbitzuaren web-orrian sartu haien kudeaketarekin lotutako kontsultaren bat egiteko.

Inkestari erantzun dioten erabiltzaileek **Zerbitzuaren web-orriko informazioa lortzeko erraztasunarekin** duten **batez besteko asebetetze-maila 7,19koa da 10etik.**

Baloratu 0-tik (ez batere ados) 10-era
(erabat ados):
Jasotako tratua egokia izan da:



Jasotako tratuari dagokionez, iritzia eman duten erabiltzaileen % 95,74ak esan du tratua egokia izan dela, baina % 4,26a ez dago gustura jasotako tratuarekin.

Inkestari erantzun dioten erabiltzaileek **jasotako tratuarekin** duten **batez besteko asebetetze-maila 8,95koa da 10etik**.

Indarguneak

Asebetetze-maila ikasleei emandako arretarekin eta informazioarekin.

Hobetu beharreko arloak

Web-orriko Idazkaritza ataleko informazioa.